



1. ATALA



ULERMENA

Aukera ezazu erantzun egokia ondorengo esaldien artean:

1.
 - a. Kalamake Molokai uharteko gizonik aberatsena zen.
 - b. Kalamake Lehuaren aita eta Keolaren aitagarreba zen.
 - c. Kalamake Keolaren aita zen eta oso gizon jakintsua zen.
2.
 - a. Jendeak Kalamake gizon ona zela esaten zuen.
 - b. Jendeak kalamakek bere etsaiak hil zituela esaten zuen.
 - c. Batzuek Kalamake mendian etsaien bila ibiltzen esaten zuten.
3.
 - a. Kalamakek lurra lantzen zuen dirua irabazteko.
 - b. Kalamakek gauzak saltzen zituen dirua irabazteko.
 - c. Kalamakek batzuetan bere sorginkeriak kobratzen zituen.
4.
 - a. Lehua erosketak egitera joan zen eta Keolak aitagarrebaren gela arakatu zuen.
 - b. Etxean bakarrik geratu zen eta Keola Kalamaken sartu zen.
 - c. Keolak Kalamaken gelan diruz betetako diruzorro bat aurkitu zuen.
5.
 - a. Hilero itsasontzi batek Kalamakeri ginebra eta rona ekartzen zizkion.
 - b. Itsasontzia astero etortzen zen eta gauzak ekartzen zizkion Kalamakeri.
 - c. Hilero itsasontzi bat etortzen zen eta Kalamakeri gauzak ekartzen zizkion.
6. Keola eta Kalamake Kalamakeren gelan sartu ziren eta....
 - a.Kalamakek sorginkeria bat egiteko asmoa zuen.
 - b.Keolak bazekien zertara joan ziren.
 - c.Kalamakek dirua eman zion Keolari.
7.
 - a. Gelatik irten ondoren hondartzara joatea erabaki zuten.
 - b. Bat-batean hondartza batean agertu ziren.
 - c. Hondartza batera joateari buruz hitz egin zuten.



GRAMATIKA

1. “ Lehuaren aita Kalemake zen, Molokai uharteko gizonik jakintsuena” (3.orrialdean)
 “ Kalamake Hawaiiiko gizonik kontsultatuena zen” (3.orr.)
 “ Kalamake Hawaii osoko gizonik beldurgarriena ere bazen” (3. orrialdean)
 “ Molokai eta Mauiko familia onenen ondorengoa zen” (4.orrialdean)

- **EN(A)** Gehientasuna adierazteko erabiltzen dugu. Izen-sintagmarekin badoa, izenak
 -**rik** partitiboa eraman ahal du.
 Adibidez: Munduko neska(rik) ederr**ENA** da

Erantzun itzazu hurrengo esaldiak:

- Zein da Euskal Herriko hiririk jendetsuena? _____
- Eta munduko mendirik altuena? _____
- Zein da Euskal Herriko herririk luzeena? _____
- Zein da munduko ibairik luzeena? _____
- Zein da Euskal Herriko mendirik altuena? _____
- Eta munduko animaliarik handiena? _____
- Eta munduko animaliarik azkarrena? _____
- Zein da Bizkaiako zubirik famatuena? _____
- Eta Nafarroako jairik ezagunenak? _____

2. “Hala ere, edozein kanpotar baino zuriagoa zen” (4.orr.)
 “Izen egokia da, bertan mila uharte baino gehiago daude eta “ (9.orrialdea)

KONPARAKETAK

1. KANTITATEA

1.1. Berdintasuna: **BESTE**

Nik zuk beste lagun daukat

1.2. Desderdintasuna: **BAINO.....+GEHIAGO/GUTXIAGO**

Nik zuk baino lagun gehiago daukat

2. NOLAKOTASUNA

2.1. Berdintasuna: **BEZAIN**

Jon Iñaki bezain azkarra da

2.2. Desberdintasuna: **BAINO.....+AGO(a)**

Jon Iñaki baino azkarragoa da



Egin itzazu konparaketak hurrengo esaldiekin:

- Nik bi ahizpa ditut eta Lurdesek ere bi ahizpa ditu

_____beste _____

- Maitek bost sari jaso ditu aurten. Imanolek sari bakarra jaso du

_____baino _____

- Jon azkarra da eta tematia ere bada

_____bezain _____

- Amaiaren kuadroa oso koloretsua da eta Erlantzena ere bai

_____bezain _____

- Gure etxeko atek bi metroko luzera daukate. Auzokoaren etxekoek bi metro eta hamar zentimetrokoa

_____baino _____

- Euskal Herria oso menditsua da. Korsika ere oso menditsua da

_____bezain _____

- Gure etxe aurrean lau urki daude; amamaren etxe aurrean bi urki daude

_____baino _____

- Karmeleren etxean bi telebista dauzkate. Isidrorean ere bi telebista dauzkate

_____beste _____



MINTZAMENA

1. Kalamake Molokai uharteko gizonik jakintsuena zen, horregatik joaten zen aholku bila harengana jendea. Gaur egun gure gizartean garrantzitsua da jakintsua izatea arrakasta izateko eta jendeak errespetatzeko?
2. Jendea Kalamakerengana joaten zen aholku bila oso gizon jakintsua zelako. Zuk nori eskatzen diozu aholkua arazoren bat duzunean, familiakoei ala lagunei? Zergatik?
3. Jendeak beldurra zion Kalamakeri, sorginkeriak egiten zituela esaten zuten eta. Zu beldurtia zara? Zer edo nori diozu zuk beldurra? Zergatik?
4. Kalamakek sorginkeria bat egin zuen eta hondartza batean agertu ziren. Zuk aukera izanez gero, nora joango zinateke? Norekin? Zer egitera?



2. ATALA



ULERMENA

Esan hurrengo esaldiak egia ala gezurra diren:

1. Hondartzan hondarra fin-fina zen eta palmondoak Zortzi Uharteetako palmondoak bezalakoak ziren
 EGIA GEZURRA
2. Negua zen baina hondartzan bero egiten zuen
 EGIA GEZURRA
3. Neskak Keola ikusi zuen eta beldurtu egin zen, baina Keola kantatzen hasi zenean neska pozik jarri zen
 EGIA GEZURRA
4. Kalamakek Keolari hondartzako jendeak ezin zituela ikusi baina entzun ahal ziela esan zion
 EGIA GEZURRA
5. Keolak sua piztuta mantentzen zuen bitartean, Kalamakek bainu bat hartu zuen
 EGIA GEZURRA
6. Kalamakek maskorrak bildu zituen eta gero alfonbratxora itzuli zen
 EGIA GEZURRA
7. Sua itzali zenean, hondartza bat-batean desagertu zen
 EGIA GEZURRA
8. Keolak, Kalamakek eman zizkion bost dolarrak arropa dotoreak eta eskusoinua erosten gastatu zituen
 EGIA GEZURRA
9. Keolak diru gehiago eskatu zion Kalamakeri eskusoinua erosteko
 EGIA GEZURRA
10. Kalamakek bere sekretuak irakatsiko zizkiola esan zion Keolari
 EGIA GEZURRA



GRAMATIKA

1. “Palmondo haiek ez ziren Zortzi Uharteetako palmondoak bezalakoak, garaiak, freskoak eta ederrak baizik” (11.orr.)

BAIZIK: Aurkaritza mota honek, lehenengo juntagaian ezeztatzen den galdegaia bigarrenetan baieztatzen du.

Lehen juntagaia ezezkoan doa beti.

- Ez dut NIK egin, ZUK baizik.
- Ez naiz BILBOKOA, BAIONAKOA baizik.
- Ez da ZURETZAT, AITORRENTZAT baizik.

Ordena itzazu hitzak eta sortu bost esaldi:

baizik OPARI aita DA ez AGURTZANERENTZAT HAU zai ez
 gustatzen EZ **bizi** sukaldariak LIZARRARA MIKELENTZAT du arroza
 lgoneren futbola MUTILAK JOANGO **Miren** **Ibairekin** BAIZIK
 oilaskoa pilota TUTERARA prestatuko baizik EZ **ez** DIRA **da**
KLASEKO baizik BAIZIK **gurasoekin**

2. “Ez kezkatu-esan zion aitagarrebak-. Horiek zure ametsak baino ez dira”
(12. orrialdean)

“Zuk bost dolar baino ez dizkidazu eman” (16. orrialdean)

BAINO EZ “Hori bakarrik, gehiagorik ez”
adierazteko erabiltzen da

- Lau galleta baino ez da geratzen
(Lau galleta bakarrik geratzen da)

Jarri esaldiak beste era batean:

- Horixe bakarrik behar genuen!

_____ baino ez _____

- Isidrorekin bakarrik hitz egin dut aste honetan

_____ baino ez _____



- Bi lagun bakarrik geratzen zaizkio hemen

_____ baino ez _____

- Hau baino ez daukat zuri emateko

_____ bakarrik _____

- Amari baino ez diot kontatu gertatu zitzaidana

_____ bakarrik _____

- Argazki bat bakarrik aurkitu dut

_____ baino ez _____

- Gure etxean lau neba-arreba baino ez gara

_____ bakarrik _____

- Aiton-amonak igandeetan baino ez dira etortzen

_____ bakarrik _____



MINTZAMENA

1. Kalamakek dirua eman zion Keolari eta honek oso arin xahutu zuen arropa dotorea erosten. Zertan gastatuko duzu zuk diru piloa ematen badizute?
2. Keolak dirua gastatu ondoren, gehiago nahi zuen. Gizakiok beti nahi izaten dugu gehiago? Inoiz ez gara egoten konforme daukagunarekin? Noiz daukagu nahikoa?
3. Anbizioa izatea ona ala txarra da? Zein arlotan da ona? Zein arlotan da txarra? Zuk baduzu anbiziorik? Zein motatakoak?



3. ATALA



ULERMENA

Erantzun itzazu ondorengo galderak:

1. Nolako itsasoa zegoen Kalamake eta Keola itsasoratu zirenean?

2. Zeri buruz ari zen pentsatzen Keola?

3. Nora iritsi ziren?

4. Zer egin zuen Kalamakek Hilen itsasora heldu zirenean?

5. Nola atera zen Keola uretatik?

6. Zergatik ez zien marinelei egia kontatu Keolak?

7. Zergatik erabaki zuen Keolak goletan marinel geratzea?

8. Nola bizi ziren itsasontzian?

9. Nola tratatzen zuen lehen ofizialak Keola?

10. Nola ihes egin zuen Keolak itsasontzitik uhartera?



GRAMATIKA

“Inor ez da ur hauetatik bizirik irten” (20.orrialdean)

“Niri ez zait ezer gertatzen” (20.orrialdean)

“Gauza batekin ados egon ziren biak: uharte hartara ez zen inoiz merkataririk joaten” (24.orrialdean)

“Esate baterako, kapitainaren ustez, uhartean ez zen inor bizi” (24.orrialdean)

“Ez du ezer ulertzen. Marinel hau kokolo hutsa da!”

INOR

INORK Forma hauek ez daukate ezezko esanahirik,

INORI ezezkoetan erabiltzen direnean EZ partikula

INOIZ gehitu behar zaie.

EZER - Zer ekarri duzu? / Ezer ez

INOLA / Ez dut ezer ekarri

INON - Noiz egon zineten? / Inoiz ez

..... / Ez naiz inoiz egon

Zuzen itzazu hurrengo esaldietan dauden akatsak:

1. Ez da inor etorriko? Ez, inor.
2. Amaiak ez duela ezer ez ekarri esan du.
3. Zer esan duzu? Ezer.
4. Ez duzu inola ere ez gaitutuko.
5. Aparailu horrek ez du ezertarako ere ez balio.
6. Gure semea ez da inora ez joango.
7. Non egon zineten atzo? Inon egon ginen.
8. Norekin egon zara kafea hartzen? Inorekin.



MINTZAMENA

1. Keola marinel gelditu zen goletan. Itsasontzia leku atsegina zen. Jatekoa ona zen. Kapitaina gizon ona zen, eta marinelak ez ziren beste zuriak baino okerragoak. Nahikoa da hori gustora egoteko lanean?



2. Zer da garrantzitsuagoa lan batean? Jarri zenbakiak garrantziaren arabera:
 - Soldata
 - Lan-giroa (lankideekin, nagusiekin, bezeroekin,)
 - Ordutegia
 - Erabakietan parte hartu ahal izatea
3. Zergatik ordenatu dituzu horrela?
4. Zein da zure ustez lanbide ideala? Zergatik?
5. Eta zein lan ez zaizu batere gustatzen? Zergatik?

4. ATALA



ULERMENA

Aukera ezazu erantzun egokia:

1.
 - a. Uhartean jende ugari zegoela ikusita, bertan geratu zen bizitzen
 - b. Ez zuen jenderik ikusi, baina bertan geratzea erabaki zuen
 - c. Uhartean geratzea erabaki zuen ura eta jatekoa zegoelako.
2.
 - a. Txabola kostaldean zegoen eta arrantza egiten zuen itsasoan.
 - b. Txabola uhartearen barrukaldean zegoen eta laku batean egiten zuen arrantza.
 - c. Egunero joaten zen kostaldera arrantza egitera.
3.
 - a. Biztanleak heldu zirenean, Keolak ezin zuen haiek esaten zutena ulertu hizkuntza desberdin batean hitz egiten zuten eta.
 - b. Biztanleak etorri zirenean Keolak etxe bat eraiki zuen eta emazteari eman zion.
 - c. Biztanleak heldu ziren eta jende jatorra eta atsegina zen. Haiekin bizi izan zen Keola.
4.
 - a. Uharte hartan oso pozik bizi izan zen beti.
 - b. Hasieran triste bizi izan zen baina gero oso pozik.
 - c. Garai batean triste bizi izan zen, gero oso pozik, eta azkenean, oso triste.
5.
 - a. Ahotsen Uharteko biztanleek goletako lehen ofiziala hil egin zela esan zioten.
 - b. Ahotsen Uharteko biztanleek goletako lehen ofiziala haien uharte nagusian zegoela esan zioten.
 - c. Goletako lehen ofizialak biztanle bat hil zuen arrain pozoituak emateagatik.
6. Uharte hari Ahotsen Uhartea deitzen zioten.....
 - a.deabru ikustezinak bizi zirelako eta hizkuntza ezezagun batean hitz egiten zutelako.
 - b.deabru ikustezinak bizi zirelako eta haiekin elkarrizketak izaten zituztelako.
 - c. a....hotsak entzuten zirelako eta uharte osoan ibiltzen ziren deabru ikustezinak bizi zirelako.



GRAMATIKA

“Ez da posible, baina!- harritu zen Keola-.Hondartza hau Kalamakerena bezalakoa da....!” (28.orrialdean)

“ Haien hizkuntza ez zen Hawaiiikoa bezalakoa, baina hitz asko berdintsuak ziren” (28. orrialdean)

BEZALA/BEZALAKOA

Moduzko esaldiak egiteko erabiltzen ditugu. Aditz laguntzaileari -N gehitu ondoren BEZALA jarriko da.

Patxik honela esan du

> Nik Patxik egin dueN bezala egin dut

Nik honela egin dut

Maiz, aditza ezabatu egiten da:

Nik Patxik (egin duen) bezala egin dut

BEZALAKOA

Patxi zuk esan duzuN bezalakoa da

Patxi zu (zaren) bezalakoa da

Erantzun itzazu ondorengo galderak parentesi artean dagoena erabiliz:

1. Nola egin duzu pastela? (Amama)

2. Nola joango zarete? (Nahi dugu)

3. Nolako autoa erosi duzue? (Zuk esan diguzu)

4. Nola etorri da gaur anaia? (Beti)

5. Nolakoa da zure senarra? (Bere ama)



6. Nola sentitzen zara hemen? (Etxean)

7. Nolako zapatilak erosi dituzu? (Zuk dauzkazu)

8. Nola ekarri dute zama? (Eraman dute)

9. Nola egin dute antzerkia? (Profesionalek)

10. Nolakoa da Peruren etxea? (Idoiaren etxea)



MINTZAMENA

1. “Ozeanian 1000 hizkuntza inguru hitz egiten dira oraindik. Azken mendeetan ingelesak eta frantsesak lekua kendu diete, eta orain gehienak desagertzeko zorian daude.” Zer iruditzen zaizu hau?
2. Zer egin daiteke hizkuntzak ez desagertzeko? Zer dago gure esku?
3. Zenbat hizkuntza ezagutzen dituzu? Noiz ikasi dituzu? Nola? Zergatik?



5. ATALA



ULERMENA

Esan ezazu ondoko esaldiak egia ala gezurra diren:

1. Keolak aukera bakarra zuela pentsatu zuen: herri harekin hegoaldeko uhartera joatea
 EGIA GEZURRA
2. Keolaren emaztea Keolarekin maitemindu zen
 EGIA GEZURRA
3. Keolari emazteak bere herria belarjalea zela esan zion
 EGIA GEZURRA
4. Keola beldurtuta zegoen jan egingo zutela uste zuelako
 EGIA GEZURRA
5. Hondartza hutsik zegoen baina ahotsak entzuten ziren
 EGIA GEZURRA
6. Hondartzan entzuten ziren ahotsak txineraz eta frantsesez bakarrik hitz egiten zuten
 EGIA GEZURRA
7. Maskorrak agertzen ziren hondartzan eta Keolak batu egin zituen
 EGIA GEZURRA
8. Keola hondartzatik atera zenean basoaren sarreran lo geratu zen
 EGIA GEZURRA



GRAMATIKA

“Era batean edo bestean, salbatzeko aukera handia zeukan” (35.orrialdean)

“Bero handi-handia egiten zuen, eta hondartza hutsik zegoen” (38.orrialdean)

“Hondartzan mugimendu handia zebilen” (39.orrialdean)

ASKO/HANDIA

Izen neurgaitzekin, asko/gutxi zenbatzaileen ordean, handi/txiki, luze/labur, erabiliko ditugu.

Bete itzazu hutsuneak Asko, Handia edo Luzea jarritz:

4. Gela honetan aulki _____ daude.
5. Gure etxean argitasun _____ sartzen da.
6. Gozoki _____ banatu dizkiegu umei.
7. Min _____ zeukan eta pilula bat hartu zuen.
8. Bide _____ geratzen zaigu oraindik heltzeko.
9. Hotz _____ egiten du hemen.
10. Euskaltegian neska _____ dago.
11. Poz _____ hartu dugu zu ikustean.
12. Abuztuan Marokon bero _____ egiten du.
13. Denbora _____ eman du zure zain.



MINTZAMENA

1. “Tabuak alde eta aldi guztietan egon dira. Eta leku eta denbora bakoitzean aldatuz joaten dira”. Aipa itzazu gaur egun tabu diren gauza batzuk.
2. Atal honetan Kanibalismoa agertzen da. Guri oso gogorra iruditzen zaigu pertsonak jatearena, baina animalia batzuk jatea ere bai. Adibidez, munduko leku batzuetan arratoiak jaten dituzte, beste leku batzuetan intsektuak, zakurrak edota katuak. Zer ez duzu inoiz jango? Zergatik?
3. Heriotza gaur egun etxetik atera dugu eta ia-ia tabu bihurtu da. Naturala da hau? Denok hilko gara dakigunez, ez dugu gehiago hitz egin behar honi buruz prestatuta egoteko heltzen den momentuan?
4. Sexua ere tabu izan da. Gaur egun ere horrela da? Zergatik?



6. ATALA



ULERMENA

Erantzun itzazu hurrengo galderak:

1. Ahotsak alde batetik bestera zebiltzan hondartzan. Zer egiten ari ziren?

2. Nor etorri zen Keolaren bila?

3. Nora joan ziren alfonbratxoan eserita?

4. Zeri buruz hitz egiten eman zuten gau osoa?

5. Norengana jo zuen Keolak aholku bila?

6. Zer esan zion misioilariak Keolari beste emazte bat hartzeari buruz?

7. Zer esan zion misioilariak Keolari diruari buruz?

8. Misioilariak zer esan zien Honoluluko poliziei?

9. Zer egin zuten Keolak eta Lehuak diruaz?

10. Zer gertatu zen Kalamakerekin?



GRAMATIKA

“Bertan, gorputzik gabeko ahotsak elkarri deika ari ziren” (41. orrialdean)

“Eta ahotsak korrika bizian zihoazen alde batetik bestera elkarri deika eta oihuka”
(41.orrialdean)

KA: Gerundioa adierazteko erabiltzen dugu. Gehienetan ekintza errepikakorrak adierazteko

Erantzun itzazu ondorengo galderak:

1. Zertan dabil pertsona bat behin eta berriz salto egiten badu? _____
2. eta behin eta berriz oihu egiten badu? _____
3. eta txandak egiten badabil? _____
4. eta bueltak ematen? _____
5. etengabe zurrungak egiten ari bada? _____
6. eta eztula egiten ari bada? _____
7. eta harriak botatzen? _____
8. kolpeak ematen? _____



MINTZAMENA

1. Misioilariak Keolari beste emazte bat hartuta oso gaizki jokatu zuela esan zion. Ados zaudete? Zergatik?
2. Herrialde batzuetan poligamia posible da baina hemen debekatuta dago bi pertsonarekin batera ezkontzea. Zer iruditzen zaizu? Zergatik?
3. Poligamia posible bada infidelitate gutxiago egongo da. Egia da hori?
4. Zer da infidelitatea zure ustez?